

BALIO PROPOSAMENA

• Zer behar edo arazo konpontzen duzue?

Gure enpresak gizarteko denbora arazoak ebazten ditu. Gizartean balio gehien duen beharra gaur egun denbora da. Guk inork eskainitakoa eskaintzen dugu.

• Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Edonori gustatuko litzaioke egunak 24 ordu izan ordez, 27 izatea. Ekonomikoki denen eskura dagoen eta gainera denbora librea eskaintzen duen zerbitzua da. Horrez gain, bezeroaren beharretara moldatzen gara eta horretarako eskaintza pertsonalizatuak egiten ditugu.

Eskaintzen dugun zerbitzuak bi sail ditu:

Denbora aurrezteko asistentzia:

Gure bezeroei denbora beharra asetzeko eta denbora librea izateko eskaintzen dugun zerbitzu pertsonalizatua da. Horretarako, bezeroarentzat egin beharrezkoak diren zereginak gauzatzen ditugu. Honek egin behar dituen enkarguak burutzen ditugu bere ordez. Horretarako, pertsona espezializatuak ditugu zerbitzu mota bakoitzean.

- Haur zainketa saila
- Sail juridiko-administratiboa
- Etxeko lanen saila
- Geriatria saila
- Garraioaren erreparazio, mantenu eta konfort-aren saila
- Enkarguen saila
- Merkataritza saila

Coaching tenporala:

Programa informatiko baten bitartez gure bezeroen denbora administratzen duen aplikazio bat diseinatu dugu. Eguneroko plangintza, asteburuetakoa eta orduz-ordu egin beharrekoak programatzen ditugu. Honen helburua, pertsona bakoitzak egutegi eta ordutegi pertsonalizatu batekin, nolabaiteko denbora aurreztea eta askatasuna lortzeko helburua betetzea da, gainera, zerbitzu honen bitartez, etorkizunean bezeroak automatikoki denbora administratzea ikasten dute, eta horrela, bizitzaz gehiago disfrutatzeke eta ondorioz bizi kalitate hobea izateko aukera ematen dugu.

Honertarako, atal desberdinetan banatu dugu enpresa: Hezkuntza saila, administrazio-enpresa saila eta etxeko-zerbitzuen saila.

Hezkuntza saila:

Ikasleei ikasketak eta bizitza pertsonala ondo kudeatzen laguntzen diegu.

Administrazio-enpresa saila:

Langileei administrazio eta enpresa inguruko arloa eta bizitza pertsonala kudeatzen laguntzen diegu.

Etxeko zerbitzuen saila:

Etxeko zerbitzuetan adibidez, sukaldaritza arloan ordutegi berezi bat presatzen dugu, daukaten denbora minimoan ahalik eta etekin handiena ateratzeko. sukaldaritzaz gain, garbiketa jeneralean hainbat arlo desberdin ditugu; adibidez: komun eta gelen garbiketa.